(a) Realicen directamente alguna de las actuaciones que supongan infracción de las presentes ordenanzas, con carácter propio, o como representantes o encargados de las empresas constituidas en personas jurídicas.

(b) No cumplan con la obligación que legalmente establezca su responsabilidad en la exigencia de cumplimiento de dicha normativa, dando lugar a que alguna de las personas referidas en el apartado a) anterior cometa alguna infracción de las presentes ordenanzas.

2. No obstante lo establecido en el punto primero, la responsabilidad será solidaria en los siguientes supuestos:

(a) Cuando el propietario, poseedor o el gestor de los residuos los entregue a una persona física o jurídica distinta de las autorizadas legalmente.

(b) Cuando sean varios los responsables y no sea posible determinar el grado de participación de cada uno en la realización de la infracción de que se trate.

Artículo 41. Inspección.



Usurbilgo Udala



1. Hondakin erabiltzaile, sortzaile edo edukitzaileak behartuta daude Usurbilgo Udalaren ikuskarpen zerbitzuei laguntzera eta eskatutako agiriak aurkeztera, zerbitzu horiek beren zereginen barruan egin beharreko kontrolak, azterketak, informazio bilketak edo bestelako lanak behar bezala egin ditzaten.

2. Ordenantza honetan araututakoa betetzearen zaintza eta ikuskaritza lana zeregin hori dagokien langileen gain joango da, baita Usurbilgo udaltzainen gain ere.

3. Ikuskatze lanak egiten dituzten pertsonak agintaritzaren agente izaera izango dute. Ondorioz, ordenantza honetan araututako jarduerak egiten diren gunetan aurretik ohartarazi gabe sar daitezke, baita utzitako hondakinak arakatu ere. Haiek egiaztatutako eta aktetan jasotako egintzek egitasun presuntzioa izango dute proba gisa erabiltzerakoan.

42. Artikulua. Beste administrazioen edo/eta epaitegien aurreko erantzukizuna.

1. Beste administrazioen aurreko erantzukizuna.

Arau-hausleak egindako urraketa beste administrazio publiko baten aurrean hutsegite izan badaiteke, Usurbilgo Udalak berehala emango dio horren berri.

2. Erantzukizun penal. Agintaritza judizialaren esku-hartzea.

2.1. Arau hausleak egindako urraketak delitu edo hutsegite izan badaitezke, Usurbilgo Udalak agintaritza judizialari horren berri emango dio.

2.2. Ekintza horiek direla eta udalean arau-hauste espediente irekitzen baldin bada, ekintzak agintaritza judizialari bidaliko zaizkio eta zigor prozedura etenda geratuko da, agintaritza judizialak esateko duena esan

1. Los usuarios, el productor o el poseedor de los residuos está obligado a prestar toda la colaboración a los servicios de inspección del Ayuntamiento de Usurbil, a fin de permitir realizar los controles, exámenes, recogida de información y cuantas operaciones sean precisas para el correcto cumplimiento de sus obligaciones.

2. El ejercicio de las funciones de inspección y vigilancia del cumplimiento en lo dispuesto en la presente Ordenanza corresponderá al personal que tenga atribuidas dichas funciones así como a los agentes de la policía municipal de Usurbil.

3. Las personas que realicen las labores de inspección tendrán el carácter de agente de la autoridad, por lo que estará facultado para acceder sin previo aviso a las instalaciones en las que se desarrollen actividades reguladas en esta Ordenanza, así como para registrar los residuos depositados. Los hechos constatados por ellos y formalizados en actas gozarán de la presunción de certeza a efectos probatorios

Artículo 42. Responsabilidad ante otras administraciones y/o los Tribunales

1. Responsabilidad ante otras administraciones.

En los supuestos en que los actos cometidos por el infractor pudieran ser constitutivos de falta administrativa ante otra Administración pública, el Ayuntamiento de Usurbil lo pondrá en su conocimiento a la mayor brevedad.

2. Responsabilidad penal. Intervención de la autoridad judicial.

2.1. En los supuestos en que los actos cometidos por el infractor pudieran ser constitutivos de delito o falta, el Ayuntamiento de Usurbil lo pondrá en conocimiento de la autoridad judicial.

2.2. Si se hubiere abierto expediente de infracción por dichos actos en el Ayuntamiento, trasladadas las actuaciones a la autoridad judicial, se dejará en suspenso el procedimiento sancionador hasta que dicha



Usurbilgo Udala



arte.

Zehatzeko prozedura etenda egonda ere Udalak egoera lehengoratzeko hartu beharreko neurriak hartu ahal izango ditu.

2.3. Agintaritza judizialak ebazpena eman ondoren, ebazpena absolbitzekoa izan arren, Udalak zehapen-espedita izapidetzen jarraitu ahal izango du, epaitegiak frogatuzat emandakoak errespetatuz. Dena den, ezingo da administrazioaren zigorrik jarri agintaritza judizialak dagoeneko zigortutako arazoientzat.

II. Kapituluak. Arau haustek eta zehapenak.

43. Artikulua. Arau-haustek.

Kapitulu hau hondakinei eta kutsatutako lurzoruei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 12.5 artikulua 49.ekin batera tokiko entitateei esleitzen dien zehapen eta arau-hauste eskuduntza garatzeko arautzen da.

44. Artikulua. Arau-hauste motak

Arloko legeriak eta beste organo eskudun batzuek ezartzen dituzten arau-hausteez gain, hondakinen gaiarekin lotutako ekintzei dagokienez ordenantza honetan araututako arau-haustek oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

1. Arau-hauste oso larriak izango dira:

(a) Udalak dagokion errekerimendua egin ondoren, arriskutsuak eta toxikoak izan daitezkeen hondakinei buruzko informazioa ez ematea.

(b) Hondakinak biltzeko eta tratatzeko bitartekoak eta tresnak nahita kaltetzea, eragindako kaltea 1.500 eurotik gorakoa denean.

(c) Urtebeteko epean arau-urratze larriak errepikatzea.

2. Arau-hauste larriak dira:

autoridad se pronuncie.

La suspensión del procedimiento sancionador no impedirá que el Ayuntamiento adopte las medidas precisas para el restablecimiento de la situación alterada.

2.3. Producida la resolución judicial, aunque la misma sea absoluta, el Ayuntamiento podrá continuar la tramitación del expediente sancionador, respetando los hechos que los Tribunales hayan declarado probados. En ningún caso procederá sin embargo, la imposición de sanción administrativa por motivos ya sancionados por la autoridad judicial.

Capítulo II. Infracciones y Sanciones

Artículo 43. Infracciones.

El presente capítulo se regula como desarrollo de las infracciones y de la competencia sancionadora atribuida en esta materia a los Entes Locales por el artículo 12.5., en relación con el artículo 49, de la Ley 22/2011, de 28 de Julio.

Artículo 44. Tipos de infracciones.

Sin perjuicio de las infracciones que en su caso establezcan otros órganos competentes, las infracciones sobre actividades relacionadas con los residuos y reguladas en esta Ordenanza se clasifican en muy graves, graves y leves.

1. Se considerarán infracciones muy graves:

(a) No dar información sobre residuos potencialmente peligrosos y tóxicos, tras el requerimiento municipal oportuno.

(b) Dañar intencionadamente los medios e instrumentos de recogida y tratamiento, siendo los daños ocasionados superiores a 1.500 euros.

(c) La reiteración de infracciones graves, en el transcurso de un año.

2. Son infracciones graves las



Usurbilgo Udala



- (a) Hondakinak biltzeko eta tratatzeko bitartekoak eta tresnak nahita kaltetzea, eragindako kaltea 751 eta 1.500 eurotik tartekoa denean.
- (b) Hondakin organikoak, beste hondakinekin nahastea.
- (c) Urtebeteko epean arau-urratze arinak errepikatzea.

3. Arau-hauste arinak dira:

- (a) Hondakinak biltzeko eta tratatzeko bitartekoak eta tresnak nahita kaltetzea, eragindako kaltea 750 eurotik beherakoa denean.
- (b) Hondakinak Udalak zehaztutako moduak errespetatu gabe, hondakinak uzteko lekuetatik kanpo, edo zerbitzuaren egutegitik edo ezarritako ordutegitik kanpo uztea, betiere ordenantza honetan arau-hauste larri bezala sailkatuta ez badago.
- (c) Norberaren hondakinak beste erabiltzaile bati dagokion lekuan uztea, nahita.
- (d) Ontziak garbitasun- eta erabilera-baldintza egokietan ez mantentzea.
- (e) Erabiltzaileak, arrazoi justifikaturik gabe eta derrigorrezkoa denean, berak sortutako hondakinak bilketa-zerbitzuaren esku uzteari uko egitea.
- (f) Hondakinak kargatzeko, deskargatzeko edota garraiatzeko lanak eragozteko edo zailtzea.
- (g) Administrazioaren alde aurreko baimenik gabe, hondakinak jasotzeko tresnak mugitzea, lekuz aldatzea edo behar ez bezala erabiltzea, betiere, azken kasu horretan, egoera arriskutsuak sor badaitezke edo zerbitzuko langileei hondakin-bilketa zaildu badiezaiekete.
- (h) Kaleko hondakin ontzietan etxeetan sortu diren hondakin poltsak uztea.
- (i) Bide publikoan ibilgailuak uztea.
- (j) Bilketarako tokietan utzitako hondakinak manipulatzeko, horretarako arrazoi justifikaturik gabe.
- (k) Bilketarako tokietan utzitako hondakinak lapurtzea.
- (l) Lursail publiko edo pribatuetan hondakinak erretzea, ordenantza honetan baimendutakoak izan ezik.
- (m) Bide publikoan aldi baterako jarrita

siguientes:

- (a) Dañar intencionadamente los medios e instrumentos de recogida y tratamiento, siendo los daños ocasionados entre 751 y 1.500 euros.
- (b) Mezclar residuos orgánicos con otros residuos.
- (c) La reiteración de infracciones leves, en el transcurso de un año.

3. Son infracciones leves las siguientes:

- (a) Dañar intencionadamente los medios e instrumentos de recogida y tratamiento, siendo los daños ocasionados inferiores a 750 euros.
- (b) Depositar los residuos sin respetar las formas establecidas por el Ayuntamiento, fuera de los puntos de recogida indicados, o sin atender al calendario del servicio o al horario establecido, siempre que no estén tipificadas expresamente en esta Ordenanza como infracción grave.
- (c) Dejar intencionadamente los residuos propios en el punto asignado a otro usuario del servicio.
- (d) No mantener los cubos en las debidas condiciones de limpieza y uso.
- (e) Negarse el usuario, sin causa justificada y cuando sea preceptivo, a poner a disposición del servicio de recogida los residuos por él producidos.
- (f) Impedir o dificultar las operaciones de carga y descarga, y de traslado de los residuos.
- (g) Desplazar, cambiar de ubicación o manipular indebidamente los utensilios de recogida, siempre que en este último caso se pudiera dar origen a situaciones peligrosas o que dificulten la recogida por parte del personal del servicio, y todo ello sin la previa autorización administrativa.
- (h) Depositar en las papeleras o contenedores de la calle los residuos generados en la vivienda.
- (i) Dejar vehículos abandonados en la vía pública.
- (j) Manipular los residuos en las zonas de recogida, salvo que concurra causa justificada.
- (k) Sustraer residuos en las zonas de recogida.



Usurbilgo Udala



dauden obra-hondakinak biltzeko edukiontzietan hondakinak uztea.

(n) Merkataritzan erabiltzen diren bilgarriak edo kartoizko kaxak tolestu gabe uztea, edo Ordenantza honetan ezarritakoa bete gabe uztea, betiere horren ondorioz oinezkoen edo ibilgailuen joan- etorria eragozten bada.

(o) Ordenantzan jasotako gainerako arau-haustek, arau-hauste larri edo oso larritzat sailkatuta ez daudenak.

45. Artikulua. Zigorrak.

1. Aurreko artikuluan jasotako arau-hausteren bat eginez gero, zigor hauetakoren bat ezarri ahal izango da:

- (a) Arau-hauste oso larriak egiteagatik: 1.501 € eta 3.000 € arteko isunak;
- (b) Arau-hauste larriak egiteagatik: 751 € eta 1.500 € arteko isunak;
- (c) Arau-hauste arinak egiteagatik: 150 € eta 750 € arteko isunak;

2. Zigorrek ezartzeko, honakoak hartuko dira kontuan: Arau haustea egin duen pertsonaren zirkunstantziak, erru maila, araua behin eta berriz hautsi izana; urratzean parte hartze maila eta lortutako onura, eta ingurumenari eragindako kaltearen neurria edota pertsonen osasuna kaltetzeko eragindako arriskua.

3. Zigorra ezartzeaz gain, Udalak eskubidea izan dezake kalte-galerengatik dagokion ordaina eskatzeko.

46. Artikulua. Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.

1. Arau-hauste oso larriak hiru urte igarota preskribituko dira, larriak bi urte igarota eta arinak urtebete igarota.

2. Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenak hiru urteren buruan preskribatuko dira, arau-hauste larriengatik

(l) Quemar residuos en terrenos públicos o privados, salvo los autorizados en esta ordenanza.

(m) Utilizar para el depósito de residuos los contenedores de obras situados temporalmente en la vía pública.

(n) Depositar envoltorios y cajas de cartón procedentes del comercio sin haber sido plegados, o con incumplimiento de lo establecido en la presente Ordenanza, siempre que dificulten el tránsito peatonal o de vehículos por dicha causa.

(o) Las demás infracciones recogidas en la Ordenanza, que no estén tipificadas expresamente como infracciones graves o muy graves.

Artículo 45. Sanciones.

1. Las infracciones recogidas en el artículo anterior podrán lugar a la imposición de alguna de las sanciones siguientes:

- 1. Por infracciones muy graves: la cuantía oscilará entre 1.501 € y 3.000 €.
- 2. Por infracciones graves: la cuantía oscilará entre 751 € y 1.500 €.
- 3. Por infracciones leves: la cuantía oscilará entre 150 € y 750 €.

2. Las sanciones se impondrán atendiendo a las circunstancias del responsable, grado de culpa, reiteración, participación y beneficio obtenido y grado de daño causado al medio ambiente o peligro en que se haya puesto la salud de las personas.

3. La aplicación de sanciones no excluye la indemnización de los daños y perjuicios a que pueda tener derecho la Administración

Artículo 46. Prescripción de las infracciones y sanciones.

1. Las infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las graves a los dos años y las leves, al año.

2. Las sanciones impuestas por infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las impuestas por infracciones graves a



Usurbilgo Udala



ezarritakoak bi urteren buruan eta arau-hauste arinengatik ezarritakoak urtebeteren buruan.

3. Zehatzeko ahalmena preskribatuta egon arren, Usurbilgo Udalak gauzak lehen zeuden moduan uzteko exijitu ahal izango die erantzuleei, igarotako denbora edozein izanda ere.

47. Artikulua. Jarduketa osagarria.

1. Behar den zehapena eginda ere, arau hausleak behartuta daude gauza guztiak arau haustea egin aurreko egoerara lehengoratzera.

2. Arau-hausleek, aurreko atalean ezarritakoa beteko ez balu, udalak hertsatzeko isunak jartzea izango du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 99. artikulua araberako, dagokion errekerimenduan ezarritako epeak igaro ondoren.

Isun horietako bakoitzaren zenbatekoa ezingo da izan egindako arau-haustearengatik jarritako isunaren herena baino gehiagokoa.

3. Bestalde, kasu hauetan, eta lehengoratzeko lanak egiten ez badira, Udalak betearazte subsidiarioari ekin ahal izango dio, arau-hauslearen kontura eta kargura.

4. Zehapenen kopurua, kalte-ordainen kopurua eta lehengoratzeko lanen kostu ekonomikoa premiamenduzko administrazio bidea erabiliz exijitu ahal izango dira, dagozkion ebazpenak bide horretan finkoak direnean.

1. XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan aurreikusi ez diren gai guztietan hondakinei eta kutsatutako lurzoruei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak, edo lege hau ordezkatzeko duenak, xedatutakoari

los dos años y las impuestas por infracciones leves, al año.

3. La prescripción de la potestad sancionadora no impedirá al Ayuntamiento de Usurbil exigir a los responsables la restitución de las cosas y su reposición a su estado anterior cualquiera que sea el tiempo transcurrido.

Artículo 47. Actuación complementaria.

1. Sin perjuicio de sanción que se imponga, los infractores estarán obligados a la reposición, restauración de las cosas al ser y estado anteriores a la infracción cometida.

2. Si los infractores no procedieran a la reposición o restauración, de acuerdo con lo establecido en el apartado anterior, el Ayuntamiento para imponer la sanción podrá acordar la imposición de multas coercitivas con arreglo al artículo 99 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, una vez transcurridos los plazos señalados en el requerimiento correspondiente.

La cuantía de cada una de las multas no superará un tercio de la multa fijada por la infracción cometida.

3. Asimismo, en estos casos y en el supuesto de que no se realicen las operaciones de restitución, el Ayuntamiento podrá proceder a la ejecución subsidiaria por cuenta del infractor y a su costa.

4. El importe de las sanciones, el de las indemnizaciones y coste económico de restitución del orden perturbado podrán ser exigidos por la vía administrativa de apremio, una vez adquiridas firmeza en dicha vía las resoluciones correspondientes.

DISPOSICION ADICIONAL 1

En todo lo no previsto en esta ordenanza se estará a lo dispuesto por la Ley 22/2011 de 28 de julio de Residuos y Suelos Contaminados y la demás normativa que fuera aplicable.



Usurbilgo Udala



men egingo zaio edo baita aplikagarri izan daitezkeen gainerako araudiei ere.

2. XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honen euskarazko eta gaztelerazko bertsioen arteko alde semantikoak agertuko balira, euskarazko bertsioa izango da balio duena.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza hau indarrean sartzen denean indargabetuta eta ondoriorik gabe geldituko dira bere mailako edo gutxiagoko xedapen, araudi eta ordenantzak, baldin eta honek dioenaren aurkakoak edo kontrajarriak badira.

AZKEN XEDAPENA

Bere testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hamabost lanegunetara sartuko da indarrean ordenantza hau.

DISPOSICION ADICIONAL 2

Si en esta ordenanza aparecieran diferencias semánticas entre las versiones de euskara y castellano, será la versión en euskara la que tenga validez.

DISPOSICION DEROGATORIA

A partir de la entrada en vigor de la presente Ordenanza quedan derogadas, dejándolas sin valor ni efecto alguno, todas las disposiciones, reglamentos u ordenanzas de igual o inferior rango que contradigan o se opongan a la misma.

DISPOSICION FINAL

La presente ordenanza entrará en vigor a los quince días laborables una vez publicado definitivamente su texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa

Guzti hau kontutan izanik, Ingurumen Batzordeak, 2014ko uztailaren 7an egingako bilkuran, Jose Maria Rivadeneyra, Iñaki Ugarte eta Eustakio Arrojeriaren aldeko botoekin, Josune Urkiaren aurkako botoarekin, eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, gehiengoz, Plenoari proposatutako erizpena kontutan hartuta, honek gehiengoz honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantzaren hasierako onespenerari PEDRO M. IBARRA IRACULIS jaunak aurkeztutako alegazioa aintzat EZ hartzea, 2014ko uztailaren 3an Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariak emandako txostenean jasotakoaren arabera.

BIGARRENA: Hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantza behin betikoz onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ematea, ordenantza bere osotasunean argitaratuz.

LAUGARRENA: Erabaki hau alegazioa tartekatu duenari jakinaraztea.

Bozketa egin denean, honako emaitza jaso da:



Usurbilgo Udala



Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre eta Eustakio Arrojeria Eguzkiza.

Aurkako botoak: Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Ricardo Crespo Rubio.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

3.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO BERRIKUSPENAREN TESTU BATEGINAREN ARAUDIAREN ALDAKETA PUNTUALAREN (01 ALDAKETA) HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu. Hasteko zehaztu du aldaketa 37, 53 eta 54 artikuluetan proposatzen dela.

37. artikuluan proposatzen den aldaketak udalaren eskaerari erantzuten diola esan du. 2011. urtean jada aldaketa hau aurkeztea eskatu zutela esan du, baina ikusirik beste aldaketa batzuk ere proposatuko zirela denbora pasatzen utzi zutela esan du. Aldaketa honek hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarrian etxebizitza erabilera ahalbideratzea duela helburu adierazi du, estalkipeko solairuetan, hain justu ere, edo fitxa urbanistikoak finkatzen duen kasuetan. Aldaketa hau egitea ona dela iruditzen zaiela dio etxebizitzetan aprobetxamendu gehiago atera daitekeela uste baitute, hau da, gutxiago eraiki behar izatea ekarriko lukeela. Halaber, jada erabilera bazuten zenbait estalkipek baina trastero moduan bakarrik erabiltzen zirela esan du. Hala ere, zehaztu du gutxieneko baldintza batzuk bete beharko dituztela, hala nola, gutxieneko 60 metro karratuko azalera izan beharko dutela, irisgarritasun neurriak bete beharko dituztela, etab.

53. artikulua, 37. artikulua dakarren aldaketa berbera duela dio baina kasu honetan lurzoru ez urbanizagarrietan.

Bestalde, 37. artikulua beste aldaketa bat ere badakarrela esan du, hau da, orain arte behe solairuetan aterpeak egiteko debeku orokor bat zegoela esan du eta debeku honek zenbait momentutan kasuistika absurdo batzuk sortzen zituela adierazi du. Hau horrela, aldaketa hau ere egitea proposatzen da, eta hemendik aurrera aterpeak egitea posible izango da beti ere dagokien eraikigarritasuna mantenduz eta errespetatuz, dagoen limitazio bakarra dela dio behe solairuei atxikita dauden erabilera publikoak duten eremu publikoetan ezinezkoa izango dela.

Azkenik, 54. artikulua aldaketa ingurumen eta nekazaritza teknikariak proposatuta datorrela eta lurzoru ez-urbanizagarrietan negutegiak ez eraikitzekeko arautegiari buruzkoa dela zehaztu du. Gaur egun indarrean dagoen araudiak negutegiak jarri ahal izateko eskatzen duen lur azalera oso handia dela esan du, gutxienez 2 hektareakoa,



Usurbilgo Udala



aldiz, negutegiaren okupazioa oso-oso txikia jartzen duela zehaztu du, %3a bakarrik. Orain, lur azalera minimoa hektarea batekoa izatea eta okupazioa %10ekoa izatea proposatzen dela esan du.

Izapidetzari dagokionean adierazi du erabakia hartzea udalbatzarrari dagokiola plangintza orokorrari buruzko aldaketa bat delako eta, bestalde, bai hasierako onespenean bai behin betiko onespenean gehiengo absolutua behar dela zehaztu du. Hasierako onspena eman ondoren hilabeteko epean jendaurrean jarriko dela esan du alegazioak aurkeztu ahal izateko eta Nekazaritza eta Landa garapenerako sailari bidaliko zaiola. Ondoren, behin behingoz onartu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaliko zaiola espedientea gaineratu du honek txostena egin dezan.

Jarraian, hitza eman die batzarkideei.

Eustakio Arrojeriak hitza hartu du eta adierazi du batzordean abstenitu egin zirela gaia taldean ez zutelako aztertu, orain, aldiz, gaia aztertu ondoren ondo iruditzen zaie eta aldeko botoa emango dutela adierazi du.

Jarraian, Luismari Ormaetxeak hitza hartu du eta argibide bat eskatu du. Alkateak eman duen azalpenean hektarea bakoitzeko %10 utziko dela esan omen du eta testuan %30a jartzen duela zehaztu du.

Alkateak erantzun dio testuan dagoenari kasu egiteko, hau da, azalaren okupazioa %30a izango dela.

Jarraian, Luismari Ormaetxeak beraien bozkaren zergatia azaldu du. Testuan esaten dela dio honen ondoren udal ordenantza bat zehaztuko dela eta batzordean esan omen zitzaaien irailetik aurrera hasiko zirela hori lantzen. Halaber, batzordean esan omen zitzaaien gai hau ez dela bat-batean orain sortu baizik eta udal gobernua azken bi urteetan lantzen ibili dela. Beraien iritziz, bi gaiak batera joan behar dutela esan du, nahiz eta hemen planteatzen diren zenbait aldaketekin beraien adostasuna gertu izan, iruditzen zaie ordenantza hori mahai ganean eduki bitartean informazioa falta dela. Adibide gisa aipatu du muga izan behar badu ertz edo zoru publikora arte, agian ordenantza lantzerakoan politikoei zalantzak sortuko litzaizkiekeela, eta teknikoei ere seguraski bai. Beraz, udal ordenantza aldaketa hauekin batera onartu beharko litzatekeela uste dute.

Bestalde, batzordean azaldu zuen bezala, Zubietako bailarak izango duen tratamendua ez da egokia. Berak ezagutu izan dituen udal korporazio guztiek ahalegin guztiak egin dituztela esan du Zubietako bailaran, bai Donostiako udalerrian egon lurra edo bai Usurbilgoan, irizpide berdinak erabiltzea hirigintza kontuak direnean. Batzordean adierazi omen zitzaaien Donostiako udaletxea ez dela ari egiten Usurbilgoa



Usurbilgo Udala



egiten ari den prozedura paralelo bat. Hori horrela, Zubietan aurkituko direla esan du segun eta zein udalerritakoa izan irizpide desberdinekin.

Azkenik, onartzera ekarri den dokumentuan esaten omen da ez dela beharrezkotzat jotzen prozesu parte-hartzaile bat. Hau justifikatzeko eman zitzaien esplikazioa izan omen zen egitera zihoazen aldaketak logika hutsezkoak zirela. Beraien ustez Zubietan Herri Batzar bat badago eta gai hau Zubietari ere badagokionez, gutxienez, haiek kontsulta egin beharko litzateke. Kontsulta hori egin ez denez, Herri Batzarraren iritzia pleno honek ez dakiela esan du.

Hiru iritzi nagusi hauek tarteko beraien bozka aurkakoa izango dela esan du.

Alkateak erantzun dio ordenantzari dagokionez, ordaindu beharrekoa estalkipeari dagokiola ez portxeei eta horrelakoei. Edozein kasutan, arkitektoak azaldu zuen moduan kalkulu batzuk egiten direla esan du eta datu finko batzuen arabera izaten direla azpimarratu du. Beraz, berdin dela dio orain egitea edo hemendik hilabete batzuetara egitea.

Zubietako kasuari buruz adierazi du Zubietan desoreka baldin badago edo hemendik aurrera desoreka bat egongo balitz, benetan orain dagoela desoreka esan du, zeren Donostiako partean estalkipetan etxebizitzak egiten baitira. Alde horretatik, Zubietarrentzat ona litzatekeela esan du Donostiarrek duten abantaila hori edukitzea.

Gaineratu du momentu honetan ez dagoela Donostia eta Usurbilen arteko inolako akordiorik Zubietari dagozkion erabakiak adosteko. Honen adibide gisa erraustegiaren kasua aipatu du.

Batzarkideek, Hirigintza Batzorde Informatzailearen diktamena azertu dute eta gehiengo osoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Espediente zenbakia: HZ.01/2014-0279

AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartzea erabaki zuen. Hauen testua 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 172. zkiko. Aldizkarian.

Orain Usurbilgo udaleko gobernu taldeak Araudiaren 37., 53., eta 54. artikulua aldatzeko asmoa dauka.

2011ko abenduaren 12an, Udalak eskatuta, Nekane Azarola aholkulari juridikoak txostena idatzi zuen “*Ganbara eta Teilapekoen erabilera aldatzeko eman beharreko pausoak*”-en inguruan. Txosten honen arabera, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legeak, 53.2.c artikulua aplikatuz, ***erabilera berezia eta erabilera***



Usurbilgo Udala



bateragarriak finkatzea, egiturazko hirigintza-antolamendutzat hartzen ditu, eta ondorioz ganbara eta estalkipekoen erabilera aldatzeko Arau Subsidiarioak aldatu behar direla ondorioztatzen du.

2014ko maiatzaren 27an Ingurumen Teknikariak “Usurbilgo plangintzako hiri antolaketako arauen berrikuspenaren testu bateginean, negutegiei dagokien irizpidea aldatzea” txostena jaulki zuen, bertan aldaketa proposamena eginaz.

2014ko maiatzean Alkatetzak Usurbilgo Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategineko 37. artikulua aldatuz, aterpeei dagokien debekua mugatzea eta zehaztea eskatu dio udal arkitektoari. Horrekin batera, aipatu aldaketa guztien beharra ikusita, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren aldaketa izapidetzea eskatu dio udal arkitektoari.

Aurrekoak kontuan izanda, Ekhiñe Eiguren udal arkitektoak eta Nekane Azarola Martinez hirigintzako udal aholkulari juridikoak aipatu aldaketak barneratzen dituen dokumentua erredaktatu dute hasierako onarpena jaso dezan.

ALDAKETAREN XEDEA

Aurrekarietan azaldutakoa bateratuz eta jarraituz, Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspen Testu Bateginaren aldaketa honen helburua da araudiaren 37., 53. eta 54. artikulua aldatzea.

37. artikulua aldatzeko Udalaren eskaerari erantzunaz idatzi da, izan ere, hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarrian egoitzazko eraikuntzetan estalkipeko solairuetan etxebizitza erabilera ahalbidetzea baitu helburua, horretarako beharrezkoak diren baldintzak zehaztuz. Egun indarrean diren arauak aukera hori espreski eraikinak kokatzen diren eremuko Plan Berezietan (aintzinako herri-guneen kasuan) edota dagokion hirigintza fitxan (gainontzeko kasuetan) finkatzen denean soilik ahalbidetzen dute.

Horrekin batera, Udalaren eskaerari erantzunaz baita ere, behe solairuan aterpeak egikaritzeko debekua zehaztu da, bizitegi eraikuntzen behe solairuei atxikita erabilera publikodun eremu/kaleak barneratzen dituen aterpeak galaraziz. Egun indarrean diren arauak behe solairuetan aterpeak orokorki galarazten dituzte.

53. artikulua aldatzeko Udalaren eskaerari erantzunaz idatzi da, 37. artikulua aldatzarekin batean, lurzoru ez urbanizagarrian egoitzazko eraikuntzetan estalkipeko solairuetan etxebizitza erabilera ahalbidetzea du helburu, horretarako baldintzak zehaztuz. Egun indarrean diren arauak estalkipean aprobetxamendu osagarriak baimentzen dituzte (B.2 puntuan) .

Azkenik, 54. artikulua aldatzeko idatzi da Ingurumen Teknikariaren eskaeraren eta proposamenaren arabera, lurzoru ez urbanizagarrian negutegiak eraikitzeko xedapen partikularrak eskatu bezala egokituz. Egun indarrean diren arauetan negutegiak arautzen badira ere, Ingurumen Teknikariaren txostenean esaten denez; *“Gaur egun negutegientzako ezartzen diren baldintzak ia bete ezinak dira, izan ere, aisialdira*



Usurbilgo Udala



mugatzen diren negutegiak izan behar dute (horren okupazio maila txikiarekin) eta aldi berean 2 Ha-ko lursailak izan behar dituzte.”

ALDAKETAREN JUSTIFIKAZIOA

Aipatu dugun bezala, aldaketa honek Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren 37, 53 eta 54. artikuluei eragiten die.

37 eta 53. artikuluentzat planteatzen den aldaketa, bizitegi erabilerako eraikuntzen estalkipean bizitegi erabilera baimentzea da, kontuan hartu gabe eraikina kokatzen den eremuaren sailkapena. Zentzu honetan, 37. artikulua orokorrean aplikatu beharreko eraikuntzen baldintzak xedatzen ditu, eta 53 artikuluko B.2 atalak, lurzoru urbanizaezinean kokatzen diren bizitegiko eraikuntzena.

Horretaz gain, Arau Subsidiarioen 54. artikulua, negutegiak xedatzen ditu. Udal ingurugiro teknikariak, araudi hori aplikatzeak, Usurbilgo udalerrian negutegiak jartzea ia galarazten duela ikusi duelarik.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 53.2.c artikuluari jarraiki, aurreikusten diren hirigintza-eraikigarritasuna, **erabilera berezia eta erabilera bateragarriak finkatzea**, hirigintzaren egiturazko antolamendu izaera edukiko dute.

Gainera, lurzoru urbanizaezinetako bizitegi erabilerako eraikinen eta negutegien erabilerak, zuzenean Arau Subsidiarioen arau orokorretan xedatzen dira, zehazki, Lurzoru Urbanizaezineko Araudia xedatzen duen 4.3. kapituluan.

Ondorioz, Euskal Lurzoruaren Legearen 59. artikuluan xedatutakoaren arabera, hirigintzako egiturazko antolamendua, Hirigintza Antolatzeko plan orokorren bidez egingo da.

Kasu zehatz honetan, Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren aldaketaren bidez.

Honek guztiak Usurbilgo Plangintzako Arau Subsidiarioen 37, 53 y 54 artikuluen aldaketa espediente honen egokitasuna justifikatzen du.

DOKUMENTU TEKNIKOA

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren Araudiaren Aldaketa Puntualaren (01 Aldaketa) Puntualaren hasierako onespenerako dokumentua udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, eta hirigintzako udal aholkulari juridikoak, Nekane Azarola Martínez andereak, prestatu dute.

LEGE TXOSTENA



Usurbilgo Udala



Udal Idazkariak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren honako txostena egin du:

LEGE-TXOSTENA

GAIA: Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren Araudiaren aldaketa (37., 53., eta 54. artikulua). Hasierako onarpena.

AURREKARIAK

Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen GAOean. Orain Usurbilgo udaleko gobernu taldeak Araudiaren 37., 53., eta 54. artikulua aldatzeko asmoa dauka.

2011ko abenduaren 12an, Udalak eskatuta, Nekane Azarola aholkulari juridikoak txostena idatzi zuen “*Ganbara eta Teilapekoen erabilera aldatzeko eman beharreko pausoak*”-en inguruan. Txosten honen arabera, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legeak, 53.2.c artikulua aplikatuz, ***erabilera berezia eta erabilera bateragarriak finkatzea***, egiturazko hirigintza-antolamendutzat hartzen ditu, eta ondorioz ganbara eta estalkipekoen erabilera aldatzeko Arau Subsidiarioak aldatu behar direla ondorioztatzen du.

2014ko maiatzaren 27an Ingurumen Teknikariak “Usurbilgo plangintzako hiri antolaketako arauen berrikuspenaren testu bateginean, negutegiei dagokien irizpidea aldatzea” txostena jaulki zuen, bertan aldaketa proposamena eginaz.

2014ko maiatzean Alkateak Usurbilgo Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategineko 37. artikulua aldatuz, aterpeei dagokien debekua mugatzea eta zehaztea eskatu dio udal arkitektoari. Horrekin batera, aipatu aldaketa guztien beharra ikusita, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren aldaketa izapidetzea eskatu dio udal arkitektoari.

Aurrekoak kontuan izanda, Ekhiñe Eiguren udal arkitektoak eta Nekane Azarola Martinez hirigintzako udal aholkulari juridikoak aipatu aldaketak barneratzen dituen dokumentua erredaktatu dute hasierako onarpena jaso dezan.

Gauzak horrela, txosten hau Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2.c) eta 47.2.ii) artikuluetan, apirilaren 18ko 781/86 Errege Dekretu Legegilearen 54.1.b) artikuluan eta irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuaren 3.b) artikuluan xedaturikoa betetzeko ematen da.



Usurbilgo Udala



LEGEDI APLIKAGARRIA

Aldaketa espediente hau, erkidegoko eta estatutuko legedia beteaz egiten da, zehazki lege hauek aplikatuz:

- 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- Ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua, presako neurriei buruzkoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duena.
- 2008ko azaroaren 28ko Legea, hirigintza ekintzak sortutako gainbalioetan erkidegoaren parte-hartzea aldatzen duena.
- Uztailaren 3ko 123/2012 Dekretua, hirigintza estandarrei buruzkoa.
- Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua.

ALDAKETAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA

Ekhiñe Eiguren udal arkitektoak eta Nekane Azarola hirigintzako udal aholkulari juridikoak prestatutako dokumentuaren helburua Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspenean Testu Bateginaren araudiaren 37., 53. eta 54. artikuluen aldaketa da eta bertan biltzen da aldaketaren xedea eta justifikazioa.

Dokumentuan adierazten den bezala, **37. artikuluen aldaketa** udal gobernuaren eskaerari erantzunaz idatzi da, izan ere, hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarrian egoitzazko eraikuntzetan estalkipeko solairuetan etxebizitza erabilera ahalbidetzea baitu helburua, horretarako beharrezkoak diren baldintzak zehaztuz.

Gaur egun estalkipeko solairuetan, trastetegi eta etxebizitzaren eranskinak, bai eta makineria eta instalaketen elementu teknikoak baimentzen dira bakarrik. Eta etxebizitza erabilera espresuki eraikinak kokatzen diren eremuko Plan Bereziatan (aintzinako herri-guneen kasuan) edota dagokion hirigintza fitxan (gainontzeko kasuetan) finkatzen denean soilik ahalbidetzen dute.

Proposatutako aldaketarekin, estalkipeko solairuetan – orokorrean – bizitegi erabilera baimentzen da, beti ere, Arau Subsidiarioetan eta irisgarritasun araudian ezarritako bizigarritasun baldintzak eta gutxieneko azalerak errespetatzen badira. Jarduera hau kudeatzeko, Euskal Lurzoruaren Legearen 137. artikuluan xedatutakoa jarraituko da, zuzkidura-jarduketa bezala definituz, eta zuzkidura publikoak hirigintza-eraikigarritasuna handitzen den portzentaje handituz. Erkidegoak hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioetan parte-hartzearen zuzkidura-karga eta lagapenei dagokionean, 2/2006 lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legeak, 105/2008 Dekretuak 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoak, 123/2012 Dekretua, hirigintza estandarrei buruzkoa eta 11/2008 Legeak, hirigintza-jardueraz sortutako gainbalioetan erkidegoak izan behar duen parte-hartzea aldatzekoak ezarritakoa bete beharko da.



Usurbilgo Udala



Horrekin batera, udal gobernuaren eskaerari erantzunaz baita ere, behe solairuan aterpeak egikaritzeko debekua zehaztu da, behe solairuei atxikita erabilera publikodun guneak/kaleak barneratzen dituen behe solairuari atxikitako aterpeak galaraztera mugatuz. Egun indarrean diren arauk egoitzazko eraikuntzen behe solairuetan aterpeak orokorki galarazten dituzte.

53. artikuluaren **aldaketa** ere udal gobernuaren eskaerari erantzunaz idatzi da, 37. artikulua ren aldaketarekin batean, eta bere helburua lurzoru ez-urbanizagarrian egoitzazko eraikuntzetan estalkipeko solairuetan etxebizitza erabilera ahalbidetzea da, horretarako baldintzak zehaztuz; beti ere bizigarritasun baldintzak (babes ofizialeko etxebizitzei dagozkien ordenantzak) betetzen badira, etxebizitza bakoitzaren gutxieneko azalera erabilgarria 60 m²koa edo handiagoa izan behar delarik.

Egun indarrean diren arauk estalkipean aprobetxamendu osagarriak baimentzen dituzte (B.2 puntuan) .

Azkenik, **54. artikulua**ren **aldaketa** Ingurumen teknikariaren eskaeraren eta proposamenaren arabera idatzi da, lurzoru ez-urbanizagarrian negutegiak eraikitzeko xedapen partikularrak eskatu bezala egokituz.

Egun indarrean diren arauetan negutegiak arautzen badira ere, Ingurumen teknikariaren txostenean esaten denez; *“Gaur egun negutegientzako ezartzen diren baldintzak ia bete ezinak dira, izan ere, aisialdira mugatzen diren negutegiak izan behar dute (horren okupazio maila txikiarekin) eta aldi berean 2 Ha-ko lursailak izan behar dituzte.”*

Horrela, negutegiak arautzeko arautegi berria planteatzen da. Zentzu honetan, gutxienez 1Ha-ko onibarra izango da. Erabilera ez-landatarra duten beste eraikinekin eta ustiapenetik kanpoko eraikinekin eduki beharreko bereizketa 20 metroan ezartzen da. Era berean, negutegiak mugarekiko eduki behar duten tartea (5 metro) eta partzelaren azalerarekiko gehieneko okupazioak ezartzen dira.

DOKUMENTAZIOAREN OSAKETA

Plan orokorrak jaso beharreko agiri edo dokumentazioari dagokionez, honako hau adierazten digu 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Hirigintza eta lurzoruari buruzkoak 62.art.-an:

62. artikulua.– Agiriak.

1.– Plan orokorren edukia agiri hauetan formalizatuko da gutxienez:

- a) Memoria informatiboa eta justifikatiboa. Plangintza-ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen-elementuak dakartzan informazio guztia jaso behar du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta aukeratutako soluzioen justifikazioa.
- b) Ingurumen-kaltari buruzko aurretiazko txostena betetzearen memoria justifikatiboa. Memoria horretan, gainera, garapen



Usurbilgo Udala



eramangarriaren ikuspuntutik arrazoitu beharko da hautatutako antolamendua, eta lurzoruak planean aurreikusitakoa betetzeko duen hartze- gaitasuna ere kontuan izan.

- c) Informazio-planoak.
- d) Egiturazko antolamenduaren planoak.
- e) Antolamendu xehatuaren planoak.
- f) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.

2.- Plan orokorretan hirigintzarako eta eraikuntzarako katalogoak eta ordenantzak ere sartu ahal izango dira.

Dokumentuaren edukia honakoek osatzen dute: 1. agiria «*Memoria justifikatiboa*» eta 2. agiria «*Hirigintza Arauak*» «*Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauen Testu Bateginaren Hirigintza Arauen 37., 53. eta 54. artikulua aldatuta*».

62. artikuluan, zehazki c), d), e) eta f) ataletan eskatzen diren agiriak, Arau aldaketa honetan ez dira jasotzen, eraginik ez dituztelako. Hau da, egiten diren aldaketak ez dira planoetan jasotzen, eta era berean ez du eraginik ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa egiteko.

Beraz, dokumentazioa egoki osaturik dagoela estimatzen da.

GAIAREN AZTERKETA

Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauen Testu Bateginaren xedapen aldaketa formulatzeko egokitasunaren justifikazioari dagokionez, dokumentuan bertan adierazten denarekin bat eginez ondorengoa esan behar da.

Aipatu dugun bezala, aldaketa honek Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren 37, 53 eta 54. artikuluei eragiten die.

37. eta 53. artikuluentzat planteatzen den aldaketa, bizitegi erabilerako eraikuntzen estalkipean bizitegi erabilera baimentzea da, kontuan hartu gabe eraikina kokatzen den eremuaren sailkapena. Zentzu honetan, 37. artikulua orokorrean aplikatu beharreko eraikuntzen baldintzak xedatzen ditu, eta 53 artikuluko B.2 atalak, lurzoru urbanizaezinean kokatzen diren bizitegiko eraikuntzena.

Horretaz gain, Arau Subsidiarioen 54. artikulua, negutegiak xedatzen ditu, eta horren inguruan udal ingurugiro teknikariak adierazi du, araudi hori aplikatzeak, Usurbilgo udalerrian negutegiak jartzea ia galarazten duela.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 53.2.c artikuluari jarraiki, aurreikusten diren hirigintza-erakigarritasuna, **erabilera berezia eta erabilera bateragarriak finkatzea, hirigintzaren egiturazko antolamendu izaera** dute.

Gainera, lurzoru urbanizaezinetako bizitegi erabilerako eraikinen eta negutegiaren erabilerak, zuzenean Arau Subsidiarioen arau orokorretan xedatzen dira, zehazki, Lurzoru Urbanizaezineko Araudia xedatzen duen 4.3. kapituluan.



Usurbilgo Udala



Ondorioz, Euskal Lurzoruaren Legearen 59.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, **hirigintzako egiturazko antolamendua, Hirigintza Antolatzeke plan orokorren bidez egingo da.** Kasu zehatz honetan, **Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren aldaketaren bidez.**

IZAPIDETZA

Plangintza aldatzea eta berrikustea 2/2006 Legearen 102. eta hurrengo artikuluetan jasotzen da. Kasu honetan, dokumentuan bertan adierazten den moduan, **Arau Subsidiarioen egiturazko antolamendua aldatu nahi da, baina ez da erabateko aldaketa egin nahi, aldaketa zehatz bat baizik, eta gainera garapen berriak ez du funtsezko eraginik egiturazko antolamenduan.** Beraz, aldaketa hau, 2/2006 Legearen 103. artikulua 4. atalean jasotakoaren arabera, edozein unetan egin daiteke.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 104. eta 105. artikuluetan, eta Lege hau garatzen duen premiazko neurri buruzko 105/2008 Dekretuko 33. eta 34. artikuluetan zehazten denaren moduan gauzatu daiteke Arauen aldaketa hau. hirigintza-planen edozein aldaketa egiteko, plan-mota berbera erabili beharko dela, eta, gainera, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko dela. Baina, Plan Orokorraren aldaketetan salbuespen bat dagoela adierazten da, hain zuzen, **hautazkotzat hartzen du aurrerakinaren tramitazioa.**

2/2006 Legearen 104.art.an hirigintzako planen aldaketarako prozedura zehazten du, eta honela dio:

“...zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan mota berbera erabili beharko da, eta gainera, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da. Arau horretatik kanpo geratuko dira honako hauek: c) plan orokorraren aldaketak-hautazkoa dutenean aurrerakinaren (abantzea) tramitazioa.

Zentzu honetan, legearen 87.art.an: *“aldaketa kasuetan, aukerakoa izango da aurrerakina egitea”*. Beraz, kasu honetan ulertu behar da plan orokorra aldatzeko prozedura jarraitu behar dela, baina aurrerakina izapidetu beharrik gabe.

Aldaketa espedientean herritarrek parte hartzeko programari dagokionez, Lurzoruaren euskal Legeak 108. artikuluan plan orokorraren onarpen prozeduran herritarrek parte hartzeko programa xedatzen du, adieraziz, beharrezkoa dela herritarrek parte-hartzeko programa bat finkatzea. Horrela dio hitzez hitz:

Plan orokorrean herritarrek parte hartzeko programa.

Egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Programa hori udalerraren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren



Usurbilgo Udala



taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu. Mekanismo horien artean honako hauek egongo dira:

- a) *jendaurreko bilkurak. Aurrerakinaren edukia azaltzeko egingo dira, batez ere hiria eraikitzeko erabaki estrategikoak eta erabaki horiei buruz espedientearen tramitazioan aurkeztutako alternatibak azaltzeko.*
- b) *Udal barruko herri-kontsulta. Planean sartutako konturen bati buruz herritarren artean eztabaida larriak daudenean egingo da, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian finkatutako prozedurari jarraituta.*
- c) *Zabalkunderako materiala. Hirigintza-tresnetarako legez eskatutako agiriekin batera prestatu beharko da, agiri horiek jendeak errazago ezagutu eta ulertu ditzan.*

Kasu zehatz honetan, dokumentuaren erredaktatzaileen esanetan, aldaketaren norainokoa kontuan harturik, negutegiak jartzeko aukera emateko araudi bat idatzi behar dela, eta ikusirik estalkipean bizitegi erabilera baimentzeko dagoen eskaera, herritarrek parte-hartzeko udalak tresna bereziak garatzea (bilera irekiak, tailerrak, kontsultak e.a) **ez dela beharrezkoa.**

Bestetik, honela dio legearen 90.art.ak:

“1.– Udalari dagokio plan orokorra egitea. Egitea erabakitzen denean, informazioa eskatuko zaie Eusko Jaurlaritzan eta dagokion foru-aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko. Informazio hori emateko, bi hilabeteko epea egongo da, eta justifikazio tekniko eta juridikoarekin batera emango da.

Era berean, **ez da beharrezkoa izango, 90. artikulua bere 1. atalean jasotako txostena eskatzea**, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzan eta dagokion foru-aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko txostena.

Hori bai, alderdi hau hiri-antolamenduko plan orokorrak berrikusteko prozeduran aplikagarria da, eta aldaketa puntualen kasuetan, kontsulta hauek espedientearen planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egitearen baitan dago.

2012ko azaroaren 19ko EHAAn, **planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua** argitaratu zen. 5.1. artikulua honako hau ezartzen du:



Usurbilgo Udala



“1.- Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen I A eranskinaren 9. paragrafoan jasotako planek eta programek ingurumen- ebaluazio estrategikoa jaso beharko dute, ingurumen-organoak hartutako erabaki arrazoitu eta publiko bidez, betiere ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketela ondorioztatzen bada”.

211/2012 Dekretuaren azken xedapenen arteko lehenean, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen I. Eranskinaren A atala aldatu zen, eta 7. idatz-zatia erantsi. Honako hau dio idatz-zati horrek:

“7.- Ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen aurreko planen aldaketak”.

Ingurumenaren gaineko eragin nabarmenak honako kasu hauetan izan ditzaketela ulertzen da:

“a) Ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzea legezko betebeharrak duten egitasmoak bihar-etzi baimentzeko esparrua zehazten dutenean. Plan edo programa batek legezko betebeharrak hori duten egitasmoak bihar-etzi baimentzeko esparrua zehazten duela joko da honako kasu hauetan: proiektuen kokaleku, ezaugarri, neurri edo funtzionamenduari buruz –besteak beste– irizpideak edo baldintzak ezartzen dituztenean; edo proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko legerian edo Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko legeria orokorrean zehazten diren kategorietako bati dagozkion proiektuetarako baimenak nola emango diren berariaz eta zehaztasunez ezartzen dutenean.

b) Zuzenean edo zeharka, Natura 2000 Sareko eremu bati era nabarmenean eragitea gerta daitekeenean, eta, hori dela-eta, Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean horientzat ezarritako araudiaren arabera ebaluazioa behar denean.

c) Ondare naturalari eta biodibertsitateari buruzko oinarritzko legeria edo Euskal Autonomia Erkidegoko natura zaintzeko legeria aplikatuz emandako arau-xedapen orokorrek edo nazioarteko hitzarmenek eragindako ingurumen-babeserako erregimenean bat duten eremuetan eragiten dutenean”.

Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen Dekretu berria aztergai dugun kasu zehatzean aplikatuta, **aldaketa espedienteak eragiten dien artikulua, ez dira jasotzen aipatu ataletan.** Horrela adierazten da erredaktatu den dokumentuan bertan eta teknikari honek ere bat egiten du bertan jasotakoarekin.

Bestetik, honela dio 2/2006 legearen 90.art.k:

*5.- Udalak hasierako onespina emango dio plan orokorrari, eta ondoren jendaurrean jarriko du, udalerriri dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz. **Plana hilabetez egongo da jendaurrean,** azken argitalpenetik kontatzen hasita. **Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie***



Usurbilgo Udala



hasierako onespeneren berri, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten;

Aurrekoaren ildotik, Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie hasierako onespeneren berri. Kasu honetan **Nekazaritza eta landa garapena sailari bidali beharko zaio.**

6.- Jendaurreko erakustaldiaren emaitzak ikusita, udalak behin-behingo onartuko du plan orokorra, bidezko irizitako egokitzapenak eginda. Dena den, egokitzapen horiek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute, udalak hasierako onspena eman beharko dio berriz planari eta jendaurreko erakustaldia irekiko du berriz, behin-behingo onartu aurretik."

Bestalde, legearen 91.artikuluak: (plan orokorra behin betiko onartzea)

1.- Plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena udalei dagokie 7.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, eta foru-aldundiei gainerakoetan; kasu bietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena egin beharko du aurretiaz.

*2.- **Plan orokorra udalak onartuko du behin-behingo eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaliko dio.** Batzordeak txostena egingo du, eta txostenak dioena loteslea izango da plan orokorra lurralde-antolamenduko tresnei egokitzeari dagokionez eta, aplikagarri den araudiaren arabera eta onartutako udalez gaineko proiektuen arabera, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo lurraldeko administrazioaren eskumeneko diren alderdi sektorial guztiei egokitzeari dagokionez.*

Beraz, behin behingo onartu eta gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaliko zaio, eta gero, bere kasuan, dagozkion aldaketekin, Foru Aldundira bidaliko da espedientea.

*4.- Beharrezko aldaketak eginda, udalak plan orokorra behin betiko onartuko du edo, bestela, **foru-organuari bidaliko dio espedientea, hark hiru hilabete baino lehen behin betiko onartzeko.***

Atal honi dagokionez, eta artikuluko 1.atala kontutan hartuz, foru-organora bidali behar du udalak espedientea honek behin-betiko onspena eman ahal diezaion.

Bestalde, adierazi behar da, apirilaren 2ko 7/1985 legeak 22.2.c)art.ak xedatutakoaren arabera, **udalbatza plenoari dagokio** plangintza orokorrari buruzko akordioak hartzea: "La aprobación inicial del planeamiento general y la aprobación que ponga fin a la tramitación municipal de los planes y demás instrumentos de ordenación previstos en la legislación urbanística".

Beraz, hasierako onspena eta behin behinekoa udalari dagokio. Bi kasuetan, **gehiengo absolutuz onartu beharko da aldaketa**, honela baita apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.art.ak: "Se requiere el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de las corporaciones para la adopción de acuerdos en las siguientes materias: II) Los acuerdos que corresponda adoptar a la corporación en la tramitación de los instrumentos de planeamiento general previstos en la legislación urbanística." Hori egin ondoren,



Usurbilgo Udala



espedientea Foru Aldundira igorri beharko da honek behin betiko onespenera eman ahal diezaion.

Bestalde, legearen 85.art.ren arabera, “3.– Hirigintzako planei hasierako onespenera emateak berekin ekarriko du edozein eratako onarpenak, baimenak eta lizentziak emateko aukera **etetea** planean xedatutakoaren ondorioz indarreko hirigintza-araubidean aldaketak izan dituzten eremuetarako. Etendura horrek ordezkatu egingo du aurreko paragrafoan zehaztutako neurria, neurri hori aurretik hartuta baldin badago”, “4.– Etendura berez iraungiko da ezarritako gehienezko epea amaitzen denean, edo, izapidetzen ari den planari behin betiko onespenera epea amaitu baino lehen ematen bazaio, ematen zaion unean”.

2.atalak berriz, honako hau dio: “2.– Eragingarria izan dadin, aurreko paragrafoan aipatzen den etete-erabakia dagokion lurralde historikoaren aldirikari ofizialean eta hedadura gehien duten egunkarietako batean argitaratu behar da”.

Laburbilduz, **izapidetzeari dagokionez**, honako hauek dira eman beharreko pausu nagusiak:

- Hasierako onspenera udalbatza plenoari dagokio, gehiengo absolutuz
- Plana hilabetez jarriko da jendaurrean, azken argitalpenetik zenbatzen hasita. GAO-n, eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian/egunkarietan argitaratuko da.
- Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie hasierako onspeneraren berri. Kasu honetan Nekazaritza eta landa garapena sailari bidali beharko zaio.
- Plenoak, alegazioak ikusita, behin-behingo onartuko du dokumentua gehiengo absolutuz, bere kasuan dagozkion aldaketak egin ondoren. Aldaketek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute, udalak hasierako onspenera eman beharko dio berriz eta jendaurreko erakustaldia irekiko du berriz, behin-behingo onartu aurretik.
- Ondoren, euskal autonomia erkidegoko lurraldearen antolamendurako batzordeari bidaliko dio espedientea, honek txostena egin dezan.
- Bere kasuan, beharrezko aldaketak eginda, Foru Aldundiari bidaliko dio dokumentua honek behin betikoz onar dezan (udalerririk 7000 biztanle baino gutxiago dituzenez, behin betiko onarpena organo honi dagokio)

Hauxe da sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritziren kalterik gabe.

Usurbilen, 2014ko uztailak 11
Udal idazkariak
Nagore Sarasola Otermin

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2014ko uztailaren 23an egindako bilkuran, Mertxe Aizpurua eta Jone Urdanpilletaren aldeko botoekin eta, Eustako Arrojeria, Luis Mari Ormaetxea, Josune Urkola eta Ricardo Cresporen



Usurbilgo Udala



abstentzioarekin, gehiengoz, Plenoari egindako erizpena kontutan hartuta, honek gehiengo osoz honako erabakia hartu du:

E R A B A K I A

LEHENENGO: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren Araudiaren Aldaketa Puntuala (01 Aldaketa) hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Onartutako dokumentazioa jendaurrean jartzea hilabeteko epealdian, iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan iragarkia argitaratuz, interesatuek hala baderitzote dagokien alegazioak aurkeztu ditzaten.

HIRUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen 01 aldaketa honek egistasmoren batean eragingo balu eraikitzeke eta lur zatiketarako baimen emakidak etetea, beti ere hartutako erabaki berriak indarrean dagoen Erregimen Urbanistikoa aldatzen badu.

Haserako onespenerari loturiko etendura gehienez bi urtebeteko epean indarrean egongo da, aipatutako planaren behin betiko onspena lortzen denean indarririk gabe geratuko delarik.

Bozketa egin denean, honako emaitza jaso da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre eta Eustakio Arrojeria Eguzkiza.

Aurkako botoak: Luismari Ormaetxea Santsiñena eta Miren Josune Urquia Carrera.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia gehiengo osoz hartu da.

4.- GALDERAK, ESKAERAK ETA MOZIOAK.

Ez da galdera edo eskaerarik egin.

4.1.- UDALEKO ELA ATAL SINDIKALAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: UDALTZAIN- GOAREN AURRE-JUBILAZIOA.

Mikel Balentziaga udaltzainak mozioaren nondik norakoak azaldu ditu.

Hasteko, ELA sindikatuak Euskal Herriko udaletxe guztietara mozio hau zabaldu nahi duela adierazi du. Udaltzainak ulergaitza den egoera batean aurkitzen direla salatu du.



Usurbilgo Udala



1992an Euskal Poliziaren Legea sortu zela aditzera eman du eta lege horretan aktibitateak eta zereginak koordinatu egin zirela, duplizitateak ekidin zirela eta nolabait razionalizazio prozesu bat eman zela gaineratu du. Hori horrela izanda, 1994ean jubilarzio momenturako akordio bat lortu zela adierazi du. Talde batzuk badaudela esan du, adibidez, artistak, toteroak, arrantzaleak nortzuk beraien lan motagatik jubilaziora begira koefiziente murriztaile batzuk dituzten. 2010ean PNVk PSOErekin adostu omen zuen Ertzainek zituzten koefiziente murriztaile horiek onartzea. Mikelek adierazi du ulergaitza egiten zaiela PNVk Ertzaintzarentzako bakarrik planteatzea eta Udaltzaingo guztia ahaztuta uztea. Mozio honen helburua dela esan du publikoki salatzea ulergaitza den egoera hori. Zereginetarako ulertzen dute talde bateratu batean daudela, aldiz, onuretarako udaltzainak kanpoan uzten dituzte.

Alkateak mozioaren azken lerroak irakurri ditu.

Jarraian, alkateak adierazi du baiezko botoa emango dutela. Estatuko Lege baten menpe dagoen zerbait dela esan du eta eskumena Madrilena dela. Beraz, beste motibo bat badutela adierazi du beste behin ere estatuaren menpe gaudela esateko eta burujabetza politikoaren beharra dagoela azpimarratzeko, guk geuk geure erabakiak hartzeko orduan.

Mozio honetan udaltzaingoaren kasua aipatzen den arren, Mikelek aipatu dituen kolektiboez gain beste batzuk ere badaudela esan du, erizainak, garraiolariak, etab., eta hauentzat ere aplikagarria izango litzatekeela esan du.

Bestalde, mozioan aipatzen den bezala, gazteei lan merkatuan sartzeko bidea irekitzen diela esan du.

Hau guztiagatik, baiezko botoa emango dutela esan du.

Jarraian, Eustakio Arrojeriak hitza hartu du eta argudiatzen diren puntuak ikusita aldeko botoa emango dutela adierazi du.

Ricardo Crespok adierazi du baiezko botoa emango duela. Gaineratu du sindikatuaren akzio eremua ikusita, soilik euskal udaltzaingoarena eskatzea ulertzen duela dio, baina berak gainontzeko udaltzainei ere zabaltzea nahiko lukeela adierazi du.

Mikel Balentziagak erantzun dio Ricardori gaur egun Espainian ere egoera hau orokortua dagoela, hala ere, gaineratu du sindikatuen artean ez dakiela zein mailatako koordinazioa dagoen.

Batzarkideek, udaleko ELA Atal Sindikalak aurkeztutako mozioa aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:



Usurbilgo Udala



“Usurbilgo udaleko ELAko Atal Sindikalak, bere afiliatu direnen ordezkari izanik, udaleko talde politikoek ondorengo MOZIO hau zuena egin eta plenoan eztabaida eta bozketarako aurkezteko eskatzen du.

UDALTZAINGOAREN AURRE-JUBILAZIOAREN INGURUKO MOZIOA

Jakingo duzuen moduan, 2008 urtean (martxoaren 14ko 383/2008 Erret Dekretua), Suhiltzaileek, 60 urterekin jubilatu ahal izateko eskubidea lortu zuten, beraien lanaren egoerak kontutan hartuta.

Era berean, 2009 urtean, EAJ-PNV eta PSOEek Madrilgo Parlamentuan eginiko akordio baten bitartez, Ertzaintzarentzako 60 urterekin aurrejubilatze eskubidea lortu zen, hau ere, poliziek egiten duten lanaren ezaugarriak kontutan hartuta. Akordio honek, 2010ean izan zuen efektu data, Segurtasun Sozialaren gaien materiak arautzen dituen abenduaren 4ko 40/2007 Legean, jubilatze adinean aplikatzen diren murrizketa koefizienteen ingurukoan zuzenki, aldaketa batzuk sartuta.

Ulergaitza den arren, sinatzaileek ez zuten Euskal Polizia Legeak esaten duena kontuan izan eta akordio horrek ez zuen Euskal Udaltzaingoa kontutan hartu. Lege horrek argi esaten du, EUSKAL POLIZIA, Ertzaintzak eta Udaltzaingok osatzen dutela eta bi poliziek egiten duten lana antzerakoa dela, bai funtzioetan, baita gaikuntza profesioletan ere.

Lege aldaketa hau justua eta behar beharrezkoa zen, izan ere polizia ogibidea, bereziki zaugarria eta bere lan-bizitza benetako egoerara doitu beharrezkoa zela argi utzi baitzuen. Egoera hau Gizarte Segurantzako Lege Orokorrak bere 161.1 bis artikuluan babesten du, “bereziki penagarriak, toxiko, arriskutsu eta osasunaren kalterako” diren ogibideen eta “heriotz tasa altuak “ dauzkaten ogibideak koefiziente murriztaile hauek aplikatuko zaizkiela.

Esandako koefiziente murriztaileak aplikatzeak, sektorean dagoen penositate, arrisku eta toxikotasunaren gaineko lanak egitea exijitzen du, langileek izaten dituzten behin behineko ezgaitasunetan dauzkaten eragina eta esandako lana egiteko eskatutako baldintzen gaineko lanak egitea ere exijitzen du.

Unibertsitate ezberdinek, udaltzainen eta polizia autonomikoen inguruan egin dituzten ikerketen arabera, arrisku eta penositate zantzuak daudela esaten dute eguneroko lanean eta lanpostu hauetara sartzeko eta eguneroko lana normaltasunez egiteko eskakizun psikofisikoak kontutan hartuta, adin batetik aurrera ezin dela lanpostu honetan normaltasunez lan egin ere esaten dute. Era honetan, legediak jubilatze murrizketa koefizienteak izateko baldintzak guztiz betetzen dira.

Polizia lana arriskutsutzat jotzen den lana dela inork ez du eztabaidatzen jada, menpe dagoen instituzioa edozein izanda ere: Legegiak, eginiko ikerketa lanek, lanean, adinean aurrera joateak daukan eragina , jubilatze adina aurreratzearen alde egiten dute.



Usurbilgo Udala



Europa erreferentziazat hartzen badugu, herrialde gehienetako polizien erretiratzeko baldintzak mozio honetan eskatzen denaren ildoan daude: Alemanian, 55 eta 60 urte artean jubilatzen dira; Belgikan 54 urtetik aurrera; Grezian 55 urterekin; Ipar Irlandan 35 urteko aintzintasuna hartzean; Italian, Norbegian bezala, 60 urterekin eta Erresuma Batuan 57 urterekin.

Oreka ekonomiko eta finantziarioari begiratu gero, aipaturiko legeak (Gizarte Segurantzako gaien inguruko abenduaren 4ko 40/2007 Legea) bere bigarren xedapen gehigarrian, erretiro adinerako koefiziente murriztaileen inguruan zera esaten du: "El establecimiento de coeficientes reductores de la edad de jubilación, que sólo proceder, cuando no sea posible la modificación de las condiciones de trabajo, conllevar los ajustes necesarios en la cotización para garantizar el equilibrio financiero". Gizarte Segurantzaren egin beharreko doikuntza horiek, Udaltzainek beraiek eta lana egiten duten administrazioek bere gain hartu beharko dituzte, Gizarte Segurantzara egin beharreko beraien atxikpenak handituz.

Ildo honetan, kostuen inguruko ikerketa aktualek, neurri hau hartzeak ekartzen dituen onuren inguruko edozein zalantza bertan behera uzten du. Udaltzainen erretiro adina aurreratzeak dakartzan Gizarte Segurantzaren kostuak igoko balira ere, plantillen gaztetzea ekarriko luke nahitanahiez eta ondorioz, absentismo eta behin behineko ezgaitasunen gutxitzea. Langile eta zerbitzuen errendimendua hobetzea ekarriko luke honek eta era berean hiritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko puntu hobean jarriko luke instituzioa, baldintza psikofisiko hobeak izateak, Hiritarrentzako Seguratsunean eragin zuzena dauka eta.

Gainera, gogoratu behar dugu apirilaren 12ko 1/2007 Legeak, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuak, zera esaten duela bere seigarren xedapen gehigarrian: "(...) el Gobierno presentar en el Congreso de los Diputados un estudio sobre los distintos regímenes de acceso a la jubilación de los funcionarios que contenga, entre otros aspectos, recomendaciones para asegurar la no discriminación entre colectivos con características similares y la conveniencia de ampliar la posibilidad de acceder a la jubilación anticipada de determinados colectivos (...)".

EAEko datuei begiratu, udalerrri guztiak kontutan hartuta dauden 3.300 udaltzain ingurutik, 500 baino gehiagok 60 eta 65 urte bitartean edukiko dituzten hurrengo bost urteetan, hau da, %17a lehenago jubilatzeke adinean egongo da eta beste 600 baino gehiagok 55 urte baino gehiago izango dituzte.

Usurbilgo udalaren kasuan, hurrengo 5 urteetan 2 udaltzainek 55 urte eta 59 urte bitartean egongo dira.

Udaltzainen aurre jubilazio honek, gainera, enplegu sorrera garrantzitsua ekarriko luke, gazteei lan merkatuak sarrera ahalbidetuko lioke, eta hau, enplegu sorrera izan beharko litzateke edozein instituzio publikoren oinarri garrantzitsuenetako bat. Azpimarratu behar dugu, aurre jubilazio honen helburua inoiz ezin dela izan lanpostuen amortizazioa, eta lanpostu horrek duina, egonkorra eta kalitatezkoa beharko lukeela.



Usurbilgo Udala



Gainera, langileen gaztetzea ere ahalbidetuko luke, instituzioek langile aktiboagoak izango lituzkete eta honek, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzea ekarriko luke.

ELAk askotan salatu du Euskal Herriko Udaltzaintzako, Ertzaintzak (eta beste polizia batzuk) aurre jubilatzeko aukera edukitzeak suposatzen duen marjinazioa. Honek, erregulazio baten beharra dagoela berretsi bestetik ez du egiten eta era berean euskal udaltzainak Ertzaintzak eta beste polizia batzuek daukaten baldintzetara ekiparatu beharra. Arrisku berberak, estaldura berbera.

Orain arte esandako guztia kontutan hartuta, ELAk, Euskal Udaltzaingoaren erretirorako baldintzak Ertzaintzak dauzkanarekiko ekiparatzea eskatzen du, erretiro adinaren erregulazioan aldaketa bat eginda. Honetarako Erret Dekretu bat egin beharko litzateke euskal udaltzaingoari ere erretirorako adinean koefiziente murriztaile bat aplikatu ahal izateko.

Horregatik, ELAko Atal Sindikala, mozio hau udal talde guztiek bere egitea eskatzen dugu, plenoan eztabaidatu eta bozkatu ahal izateko.

Aurrez esandako guztiagatik, Udalbatza plenoak aho batez honako erabakiak hartu ditu:

1. Usurbilgo udala, Gizarte Segurantzaren gaineko egungo legedia aldatzeko prozesua zabaltzearen alde azaltzen da, Euskal udaltzainei aurre jubilatzeko koefiziente murriztaileak aplikatu ahal izateko, Ertzaintzak daukan baldintza berdinetan, 1/1994 Erret Dekretu Arautzaileko berrogeitabostgarren xedapen gehigarrian jasotzen den bezala zeinak abenduaren 4ko 40/2007 Legea onartzea ahalbidetzen duena.
2. Usurbilgo udalak, Eusko Legebiltzarrari agindu ematen dio, era berean Espainiako Gobernuak premiatzeko Gizarte Segurantzaren gaitako egungo legediaren aldaketa prozesua hasi dezan euskal udaltzainei aurre jubilatzeko koefiziente murriztaileak aplikatu ahal izateko, Ertzaintzak daukan baldintza berdinetan, 1/1994 Erret Dekretu Arautzaileko berrogeitabostgarren xedapen gehigarrian jasotzen den bezala zeinak abenduaren 4ko 40/2007 Legea onartzea ahalbidetzen duena.
3. Usurbilgo udalak, Euskal Udalen elkarteei (EUDEL eta UDALBILTZA) agindu ematen die ekintza honi babes emateko eta ordua helduta berau aurrera eramateko datu eta dokumentuak eman ditzaten."

Bozketa egin denean, honako emaitza jaso da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Luisuari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.



Usurbilgo Udala



Beraz, erabakia aho batez hartu da.

4.2.- USURBILGO EHBILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ESTATU BATUETAN KONDENATUTAKO BOST KUBATARREN ASKATASUN ESKAERA.

Josu Portuk mozioa irakurri du.

Luisuari Ormaetxeak hitza hartu du eta adierazi du beraiek abstenitu egingo direla, hau aztertzeko nahikoa denbora ez dutela izan argudiatu du.

Batzarkideek, Usurbilgo EH Bilduk aurkeztutako mozioa aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Estatu Batuetan kondenatutako bost kubatarrei buruzko mozio proposamena euskal erakundeetan eta Barack Obama lehendakariari askatasun eskaera

Euskadi-Cuba adiskidetasun eta elkartasun elkarteak, Komite Internazionalistak eta Askapena talde internazionalistek eta Euskal Herriko emigrazio kubatarrek osatutako “Desembarco del Granma” eta “Sierra Maestra- Euskadi” elkarteek eskatuta.

Badira 50 urte baino gehiago Kubak justifika ezin daitekeen blokeoa pairatzen duela. Estatu Batuetako gobernu guztiek inposatutako blokeoak ondorio larriak eragiten ditu Kubatar herriaren ekonomian, baita bere eguneroko bizitzan ere.

Estatu Batuek, blokeoa sostengatu ez ezik, Miamin kokatutako hainbat talde eta pertsonari babesa ere eskaini diete. Aipatutako batzuek kubatar herriaren kontrako ekintza terroristetan eta bestelako erasoetan parte hartu dute 3500 inguru hildako eraginez. CIA-k datu hauek onartu eta baieztatu ditu desklasifikatutako zenbait dokumentutan zein ekintza horietan inplikaturiko pertsona horien adierazpen publikoetan.

Kubako gobernua, zilegia den aldetik, hainbat pertsona bidali zituen Miamira bere herritarrek eta ondasun publikoak babesteko. Xedea han bertan ekintza terroristak gertatu baino lehen ezagutu eta, hortaz, ekidin ahal izatea zen.

Pertsona hauek bost: Gerardo Hernández Nordelo, Ramón Labañino Salazar, René González Schwerert, Fernando González Llort eta Antonio Guerrero Rodríguez Miamin zeudela, informazio eta prebentzio misioan, Estatu Batuetako agintariak atzeman zituzten 1998ko Irailean. Gobernu estatubatuarrek bere lurraldean nazio atzerritar baten alde lan egitea leporatu zien.

Espetxean 33 hilabete prebentzio gisan eta fidantzarik gabe pasa eta gero, 2001ean epaituak izan ziren. 15 urte eta betiko Kartzela-zigorrek ezarri zituzten espioitza eta erailketak egiteko konspirazioa leporatuta. Epaian ez zen defentsak adierazitako aringarri bat ere kontuan hartu; aitzitik, epaileak kasu bakoitzean fiskaltzak agerrarazi zi-



Usurbilgo Udala



tuen astungarri oro aintzat hartu eta gehienezko zigorra ezarri zien. Horrez gain, esan beharra dago fiskaltzak ez zuela kargu horiek justifikatzen zuen frogarik aurkeztu.

Epaiketa hau Miamin egin zen kubatar-amerikarren elkarteen presiopean eta baita haien propaganda-kanpainapean ere. Halaber, auzipetuei ukatu egin zitzairen egoitza judiziala aldatzeko aukera. Bi kargu printzipalei dagokienez, hau da, erailketa gauzatzeko asmoa eta konspirazioa, batean zein bestean ezin izan zen deus ez frogatu. Espioitza kasuan, adibidez, ez zen egiaztatu akusatuek Estatu Batuetako gobernuarengandik inongo dokumentaziorik eskuratu zutenik; ulertzekoa dena, akusatuen misioa Hego Flordan dauden ustezko talde terroristei buruzko informazioa lortzea besterik ez baitzen.

Gorabeheren eta irregulartasunen ondorioz, Nazio Batuek duten Giza Eskubideetarako Komisioak, zeinek lantalde bat duen Atxiloketa Arbitrarioei buruzkoa, ondorioztatu zuen 2005ko maiatzaren 27an atxiloketak hasiera-hasieratik arbitrarioak izan zirela, erruduntzat hartzeko ez zirelako bete ez formaltasun legalak ez eta Estatu Batuetako legearen beraren jardunbidea.

Beste nazioetako agenteen atxiloketetan presoak elkartrukatzea da gobernuen ohitura eta prozedurak. Orain dela gutxi, Estatu Batuetako gobernuak errusiarren gobernurako lan egiteagatik espioitza hartutako hainbat pertsona elkartrukatzea onartu du.

Kasu honetan, Kubaren kontrako blokeoa eta bost pertsona hauek bidegabeki zigortzeraren eraman zituzten motibazio politikoen egoera honi irtenbide bat ematea eragozten dute. 15 urte baino gehiago pasatu dira Estatu Batuetako espetxe batean sartu zituztenetik. Munduko milioika gizon eta emakume, estatuetako presidente ohiak barne, intelektual ospetsuak, kultura gizonak, zientzialariak, kirolariak, mugimendu sozialak, sindikatuak, etab. mintzatu dira injustizia honen bukaera eskatzeko.

Bostetako bat, René González, Kuban bizi da jadanik, 13 urte baino gehiago kartzelan egon eta gero eta 2014. urteko otsailean Fernando González kartzelatik irtengo da bere zigorra beteta. Baina, beste hirurek 22 urte eta betiko kartzela-zigor arteko zigorrak dituzte.

Arrazoi hauek direla kausa, Udalbatza plenoak, gehiengoz, honako erabakiak hartu ditu:

LEHENENGOA: Estatu Batuetako presidentea dei egin nahi diogu bere betearazle ahalmena balia dezan egoera larri eta bidegabeko honi irtenbide bat emateko. Hau da, gobernu estatubatuarri eskatu preso hauek kartzelatik atera ditzan: Gerardo Hernández Nordelo, Ramón Labañino Salazar eta Antonio Guerrero Rodríguez hiritar kubatarak, hain zuzen ere.

BIGARRENA: Akordio hauek bidali Kubako enbaxada/kontsulatuari, Estatu Batuetako enbaxada/kontsulatuari, eta Kanpo-arazoetarako Ministerioari.”



Usurbilgo Udala



Bozketa egin denean, honako emaitza jaso da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre eta Eustakio Arrojeria Eguzkiza.

Abstentzioa: Luisuari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

4.3.- USURBILGO EHBILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GAZAKO ERASOAK BEREHALA GELDITZEKO ESKAERA.

Alkateak adierazi du mozio hau deialdian ez zutela sartu baina ikusirik Gazako biztanleek bizi duten premiazko egoera, beharrezkoa ikusten dutela esan du pleno honetan mozio hau aztertzea.

Batzarkideek, aho batez, puntu hau gai-zerrendan sartzea berretsi dute.

Iñaki Ugartek mozioa irakurri du.

Jarraian, alkateak gaineratu du gaur bertan beste eraso bortitz batzuk izan direla eta egoera gero eta larriagoa izaten ari dela. Palestinarren aldetik 1.000 hildakotik gora eta Israeldarren aldetik, berriz, 50 hildako daramatela adierazi du.

Batzarkideek, EHBilduk aurkeztutako mozioa aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Hiru gazte israeldarren desagerpen eta heriotza tragikoaren ondotik, palestinar biztanleriaren kontrako zigor kolektibo bat ari da burutzen Israelgo gobernuak. Horren ondorioz ehunka lagun hil dira, gehienak zibilak, eta beste milaka zauritu dira.

Bilakaera militarrek gora egin du, Israelek lurretik erasoari ekin ondoren, eta horrek operazio militar honen eragin suntsitzailea biderkatu egin du.

Israelek Gazaren kontra burututako erabateko erasoak, munduko zonalde populatuenetariko baten kontrako, proportzionaltasun, zuzentza eta borrokalariaren eta zibilaren arteko bereizketa printzipioak urratzen ditu, eta nazioarteko legeriak dioen moduan guztiz arbuiatu behar da.



Usurbilgo Udala



Ezer konpontzetik urrun, erasook lortuko duten gauza bakarra egoera okertzea eta eskualdeko ezegonkortasuna handitzea izango da. Honez gain, gatazkarekin zerikusirik ez duten biktima ugari sortzen ari da.

Horregatik EH Bilduk bortizkeria jarduera hau gelditzeko urgentziatzeko deia egiten du, eta NBERen ebazpenetan oinarrituriko eta elkarrizketaren zein negoziazioaren bidezko gatazkaren konponbidearen beharra berresten dugu. Baita Giza Eskubideen errespetu osoa ere.

Hainbat indar palestinarrek sustatutako batasun nazionaleko gobernua mehatxu gisa ulertu beharrean, aukera eta norabide egokian emandako urrats gisa ulertu behar da, Palestinako herriaren ahots bateratuak edozein irtenbide errazten duelako.

Nazio Batuek onartutako mugak dituen Estatu Palestinar bideragarri baten aitortza dakarren elkarrizketa eta negoziazio prozesu inklusibo batek soilik, jar dezake konpontze bidean, sufrimendu izugarria eta eskualdean etengabeko ezegonkortasun eragin dituen gatazka hau.

Hori dela eta, Udal honek, zera exijitzen du:

-“Hegi babesgarria” izeneko operazio militarri berehala bukaera ematea eskatzen diogu Israelgo gobernuari, horren ondotik su-eten orokorra indarrean jartzea, nazioarteko begiraleen bermearekin.

-Su-eten hori indartzeko bidean, hainbat konpromiso beharrezkoak dira: Besteak beste Gazako blokeoa altxatzea eta oro har populazio zibilak pairatzen dituen beste zigor neurriekin bukatzea.

-Nazioarteko erakundeen esku hartzea eskatzen dugu, Nazio Batuetako ebazpenetan sustaturiko konponbidea sustatzeko.

-Estatu palestinarren sorrera ahalbideratuko duen elkarrizketa inklusiboan sustaturiko negoziaketa prozesua da berme bakarra gatazka honek eragin duen sufrimendua amaitzeko, baita Ekialde Hurbileko eskualdeak pairatzen duen egonkortasun eza gainditzeko ere.”

Bozketa egin denean, honako emaitza jaso da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Luis mari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera, Josune Urkola Larrarte eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

Alkate andreak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:40ean eta bilera agiri hau jaso da, Alkateak izenpetuz eta nik, Idazkariak, ziurtatuz.